

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Bakioko jabari publikoko barruko lagapenak (iragarkia 2018-01-03 Bakio)**

Bakioko Udaltzakar, 2017ko abenduaren 28an, egindako ohiko osoko bilkuran, aho batez erabaki hau hartu zuen:

Udaletxe aurreko herriko enparantzaren (Agirre Lehendakaria plazea, 2), 335,35 m<sup>2</sup>ko zatia herriko eskolaren (Agirre lehendakaria plazea, 1) erabilerarako lagatzea.

Herriko eskolaren esparruko 32,92 m<sup>2</sup>ko zatia eskola erabileratik desafektatu eta herriko enparantzari atxikitzea.

Hori guztiori espedientean dauden azaleren planoen arabera.

Izan ere, 335,35 m<sup>2</sup> horiek estalitako patio modura erabiliko dira «Urkitza» ikastetxearen zerbitzurako, betiere irisgarritasuna hobetzeko obrak burutzeko oinarritzko 2017.12.09ko proiektuaren arabera.

Aurkaratzeko bideak: toki araubideko oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 52.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua ipini ahal izango da administrazio bideari behin betiko amaiera ematen dion egintza honen kontra (29/1998 Legearen 25.1. artikulua eta 39/2015 Legearen 123.1. artikulua) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Bilboko Auzitegian; hori egiteko epea hilabete bikoia izango da (29/1998 Legearen 46.1. artikulua), jakinarazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Dena dela, aipatutako errekurtsu judizialari ekin orduko, berraztertze errekurtsua ipini ahalgo zaio egintza ebatzi duen organoari berari (39/2015 Legearen 123.1. artikulua) hilabete epean (39/2015 Legearen 124.1. artikulua), jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita. kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik ipini, harik eta berraztertze errekurtsua ebatzi edo haren presuntziozko ezespina izan arte (39/2015 Legearen 123.2. artikulua); ezespina hori halaxe gertatzen da hilabete igarotzen denean ebazpena jakinarazi gabe (39/2015 Legearen 124.2. artikulua).

Edozelan ere, hori guztiori ez da eragozpena izango egoki deritzozun beste edozein helegite edo aurkarapen bidea aurkezteko.

Bakio, 2018ko urtarrilaren 19an.—Jarduneko Alkate andrea, María Isabel Barturen Lasa